

Irailaren 20aren aurrean

Atzo, 1978ko erregimenak Katalunian, eta oro har Espainiar Estatu guztian, mozorro guztiak kendu eta modu erabat gordinean bere aurpegirik neofrankista, autoritario era bortitzena agerian utzi zuen.

Katalunian atzo gertatutako errepresio uholdea sarritan gertatu izan da Euskal Herrian azken hamarkadetan. Indarrean dagoen eta gurean askotan erabiltzen duten salbuespen legerien barnean, gure Herrian atxiloketa masiboak, hedabideen itxiera "manu militari", alderdi eta mota guztietako erakunde eta elkarten legez kanporatzeak, eledunen jazarpena, hauteskundeetan emandako "putxerazo" lotsagarriak Ezker Abertzaleko hautagaiak legez kanpo utzita, bozka paperen jazarpena ... Azkenean agerian geratu da salbuespen legeria ez zela soilik hasiera-hasieratik eta hamarkada luzeetan zehar 78ko erregimenari aurre egin dion Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua zapaltzeko tresna, baizik eta Espainiako Erresuman agertzen den edozein disidentzia suntsitzeko arma. Eta hori guztia 1978ko Konstituzio monarkiko neofrankistatik datorrela, iturri bereko urak direla.

Espainiar eta frantses(in)komunikabideak, (eta gure artean Correo taldea, Diario de Navarra eta Sud-Ouest), euskal gatazkan erabilitako "komunikazio gerraren" taktika berberak erabiltzen ari dira orain Kataluniaren kontra Estatuko iritzi publikoa intoxikatu eta manipulatzeko. Ezer berririk ez.

Honen guztiaren aurrean HERRITAR BATASUNAK elkartasun osoa adierazi nahi dio Kataluniako Herriari eta bereziki bere sektore herritar eta langileei. Ezkerreko erakundetan antolatutak eta borrokalariak direnak. Finean errepresioaren aurrean Kataluniako independentziaren aldeko garra bizirik mantentzeko determinazio indartsuena daukatenak. Elkartasuna hitzez haratago joan behar da, eta horregatik dei egiten diegu euskal herritarrei Kataluniaren alde mobilizatzeko eta elkartasun internazionalistaren uholdea sortzeko gurean.

hb herritar batasuna

Herritar Batasunak, gure txikitik eta apaltasunetik, bere ardura historikoa hartuko du une honetan beste hainbat euskal eragileekin batera, estatu kolpe saiakera gelditzeko eta independentzia zein sozialismoaren bidean urratsak egiteko, hemen eta Katalunian.

Testuinguru honetan bereziki salatu nahi dugu gertatzen ari denaren aurrean EAJ-PNVk egiten ari den joko bikoitza eta bere interes ekonomikoen defentsa zinikoa. Maiz askotan erakunde eta instituzio autonomikoen hain defendatzaile sutsu agertzen den alderdi jelkidea oso erantzun eskasa eta koldarra eskaini du eta ez ditu bere negozio eta tratuak apurtu honen guztiaren arduradunak diren PP eta PSOE alderdiekin. Jakina, PPren gobernuak babesten baitu, eta PSOErekin gobernatzen ari baita. Eta bitartean, Kataluniarekin elkertasunez jokatzeko delako plantak eta espantuek egiten, hipokrita hutsak ez bailiran. Ez dute inor engainatzen horrelako komerietan, denon dakigu PPko Gobernuaren morroiak direla.

Hurrengo egunetako gertakarien harira, suertatzen ari den guztiaren inguruko hausnarketa sakonago eskainiko dugu. Une honetan gertaerak bata bestearen atzetik katramilatzen ari baitira. Baina kontu bat argi dugu: kalera jotzeko eta gure indar guztiez mobilizatzeko unea da. Aurrera! Endavant!

**Visca la terra! Visca Catalunya lliure!
No pasarán!**

Euskal Herrian, 2017ko Irailaren 21an

www.herritarbatasuna.eus